## UDALBATZA AKTA

## 2020KO OTSAILAREN 5EKO OHIKO SAIOA

Soraluzeko herrian, bi mila eta hogeiko otsailaren 5ean, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Udalbatza aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Veronica Galarraga Izagirre eta Iñaki Rubio Torrientes, Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Roke Akizu Aizpiri eta Jone Alberdi Alvarez zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean elkartu dira, lehenengo deialdiz eta Idazkari lanetan Itziar Azurza Sorrondegui andrea arituz.

### 1.-2019KO ABENDUAREN 19KO SAIOAREN AKTA ONARTZEA.-

Aho batez onartu da 2019ko abenduaren 19ko udalbatza akta.

### 2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-

Abenduaren 27ko 118/2019 zenbakidun dekretutik urtarrilaren 20ko 005/2020 zenbakidun dekretu arteko Alkatetza dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

- Abenduaren 27ko 118/2019 dekretua. Kreditu aldaketa (transferentzia)

- Abenduaren 27ko 119/2019 dekretua. Kreditu aldaketa (gaikuntza)

- Abenduaren 30eko 120/2019 dekretua. 29 eta 30 zenbakidun faktura zerrenden ordainketa.
- Abenduaren 30eko 121/2019 dekretua. Lanbide bidez kontratua lorezaintza proiekturako LC -rekin.
- Abenduaren 30eko 122/2019

## ACTA DEL PLENO

## SESIÓN ORDINARIA DE 5 DE FEBRERO DE 2020

En la localidad de Soraluze, siendo las 19:00 horas del día 5 de febrero de dos mil veinte, previa convocatoria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento las señoras y los señores Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre e Iñaki Rubio Torrientes, Tenientes de Alcalde, y Ramón Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Roke Akizu Aizpiri y Jone Alberdi Alvarez concejales, se reúnen bajo la presidencia de D. Iker Aldazabal Basauri Alkate, en primera convocatoria, actuando como Secretaria Dña. Itziar Azurza Sorrondegui.

### 1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 19 DE DICIEMBRE DE 2019.-

Se aprueba por unanimidad el acta del Pleno de 19 de diciembre de 2019.

### 2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-

Se da cuenta al Pleno desde el decreto de Alcaldía número 118/2019 de 27 de diciembre hasta el número 005/2020 de 20 de enero.

- Decreto 118/2019, de 27 de diciembre. Modificación de crédito (transferencia).
- Decreto 119/2019, de 27 de diciembre. Modificación de crédito (habilitación).
- Decreto 120/2019, de 30 de diciembre. Pago de la relación defacturas nº29 y 30.
- Decreto 121/2019, de 30 de diciembre. Contrato vía Lanbide con L.C. para el proyecto de jardinería.
- Decreto 122/2019, de 30 de



Santa Ana, 1 ● SORALUZE (20590) ● Tfn.: 943753043 ● Fax: 943753112 ● udala@soraluze.eus ● www.soraluze.eus

dekretua. Lanbide bidez kontratua lorezaintza proiekturako K.O.-rekin.

- Abenduaren 27ko 123/2019 dekretua, energia elektrikoaren hornikuntza Foru Aldundiaren kontratazio zentral bidez.
- Urtarrilaren 2ko 001/2020 dekretua. Ondare erantzunkizuna onartuz I.I. andrearen alde.
- Urtarrilaren 2ko 002/2020 dekretua. 2019/07 erreferentziadun zergabilketa bajak.
- Urtarrilaren 2ko 003/2020 dekretua. 2019/08 erreferentziadun zergabilketa bajak.
- Urtarrilaren 17ko 004/2020 dekretua. 2020/01 zabor errolda onartuz.
- Urtarrilaren 20ko 005/2020 dekretua. 31 zenbakidun faktura zerrendaren ordainketa.

diciembre. Contrato vía Lanbide con K.O. para el proyecto de jardinería.

- Decreto 123/2019, de 27 de diciembre, adhesión a la Central de Contratación de la Diputación Foral para suministro de energía eléctrica.
- Decreto 001/2020, de 2 de enero. Aceptando la responsabilidadpatrimonial a favor de la Sra. I.I..
- Decreto 002/2020, de 2 de enero. Bajas de recaudación con referencia 2019/07.
- Decreto 003/2020, de 2 de enero. Bajas de recaudación con referencia 2019/08.
- Decreto 004/2020, de 17 de enero. aprobando el censo de basuras 01/2020.
- Decreto 005/2020, de 20 de enero. pago de la relación de facturas nº 31.

**3.- ORDENANTZA, GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI ERANTZUTEKO HARRERA-ETXEBIZITZA ARAUTZEARI BURUZKOA.**

Ordenantza honen xedea larrialdiko harrera etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea da.

Baliabide honen sorrera eta erregulazioa, Udalak premiazko alojamenduaren arloan duen eskumenean du oinarri.

Patricia Borinaga andreak, alkate ordeak eta PSE-EEko udal taldearen ordezkariak, adierazi duenez, "Area"ko pisua da, Eibarreko udaletxearekin elkarbanatuta, presazko edo larrialdi sozialeko egoeretarako. Zintzilik dago oraindik etxebizitzaren mantenu gastuen finantziazioaren hitzarmena. Hurrengo Udalbatzarako prest egongo delakoan dago.

**3.- ORDENANZA REGULADORA DEL PISO MUNICIPAL DE ACOGIDA PARA LA ATENCIÓN DE SITUACIONES DE URGENCIA SOCIAL.**

La presente ordenanza tiene por objeto regular el uso y el acceso al piso de acogida de urgencia de carácter municipal.

La creación y regulación de este recurso tiene su fundamento en la competencia del Ayuntamiento en materia de alojamiento de urgencia.

Doña Patricia Borinaga, teniente de alcalde y representante del grupo municipal del PSE-EE, ha señalado que se trata de un piso de "Area", compartido con el Ayuntamiento de Eibar para situaciones de urgencia social. Comenta que sigue pendiente el convenio de financiación de los gastos de mantenimiento de la vivienda y se espera que esté listo para la próxima sesión del

Pleno.

**UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ONARTU DU**:

**Lehena**: Hasierako onarpena ematea gizarte larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza arautzeari buruzko ordenantzari. (I.ERANSKINA)

**Bigarrena**: Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun baliodun eko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean iragarkia argitaratuz, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera,.

Epe hori igaro eta erreklamazio ezean, behin betiko onartutzat joko da akordioa, eta testu osoa argitaratuko da.

**EL PLENO POR UNANIMIDAD ACUERDA:**

**Primero**: Aprobar inicialmente la ordenanza reguladora del piso municipal de acogida para la atención de situaciones de urgencia social. (ANEXO I)

**Segundo**: Someter el expediente a exposición pública mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial Gipuzkoa y la página web municipal durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que las personas interesadas puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes, según lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Una vez transcurrido ese plazo sin que se haya producido ninguna reclamación, se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo y se procederá a publicar eltexto completo.



**4.-NISAE (EUSKADIKO ADMINISTRAZIOEN ELKARRERAGINGARRITASUN ETA SEGURTASUN-NODOA) ETA SORALUZEKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

Idazkariak azaldu duenez, "elkarreragingarritasuna" Administrazio Publiko ezberdinen artean datuak trukatzea ahalbideratzeko baliabideada. NISAE abiatzean, lehenetsitako zerbitzu eta prozeduren artean, adibide gisa, Gizarte Segurantzako ordainketak egunean edukitzearen kontsulta dagoela, kontratazio prozedurarako beharrezkoa dena, baita eta diru-laguntzetarako ere. Zerga arlorako edo bekak direla eta, antzeko mekanismoak ezarri dira. Administrazio elektronikoa gauza dadin funtsezkoa da maila eta izaera ezberdineko Administrazio arteko

**4.- APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE Y NISAE (NODO DE INTEROPERABILIDAD Y DE SEGURIDAD DE LAS ADMINISTRACIONES DE EUSKADI).**

La secretaria expone que la "Interoperabilidad" es un recurso que permite el intercambio de datos entre las distintas Administraciones Públicas. Entre los servicios y procedimientos priorizados en la puesta en marcha de NISAE se encuentran, a modo de ejemplo la consulta de estar al corriente de pago de la Seguridad Social, necesaria para el procedimiento de contratación, así como para las ayudas y subvenciones. Se han establecido similares mecanismos a efectos de tributos o becas. Es fundamental para la plasmación de la Administración electrónica esta

lankidetza hau.

colaboración entre las Administraciones de distintos niveles y de diferente naturaleza.

**UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU**:

**Lehena:** NISAE (Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun eta segurtasun-nodoa) eta Soraluzeko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea (II. ERANSKINA).

**Bigarrena:** Alkateari baimena ematea hitzarmena eta berau indarrean sartzeko beharrezko diren agiriak sinatzeko.

**Hirugarrena:** Akordioaren berri ematea interesdunari.

**EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

**Primero:** Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Soraluze y NISAE (nodo de interoperabilidad y de seguridad de las administraciones de Euskadi (ANEXO II).

**Segundo:** Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos sean necesarios para su entrada en vigor.

**Tercero:** Proceder a la notificación del acuerdo al interesado.

**5.- GIPUZKOA ETORBIDEKO LURZORU PUBLIKOAREN DESAFEKZIOA ONARTZEA.**

Soraluzeko hirigintza antolaketa Plan orokorrak 139 artikuluaren B.2. atalean zera arautu du: "Igogailu Instalazioaren kokagunea jabari publikoko lursailean egokitzen denean; haren okupazio pribatiborako dagokion baimenaeskuratu beharko da.".

Hain zuzen ere, Gipuzkoa etorbideko 4, 6. 8 eta 10 zenbakidun atarietan igogailuaren instalazioa jabekide elkarteak jartzeko, 9,21 m2-ko (3,50mX2,63m) azalera duen jabari publikoa desafektatu beharra dago.

Desafektazioaren oportunitatea edo egokiera eta legezkotasuna justifikatu beharra dago, 7/85 legearen 81 artikuluaren arabera.

Hirigintzako Batzorde Informatzaileak proposatuta**, UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

**5.- APROBACIÓN DE LA DESAFECTACION DE SUELO PÚBLICO EN GIPUZKOA ETORBIDEA.**

El Plan General de ordenación urbana de Soraluze establece en el apartado B.2del artículo 139 que "cuando la ubicaciónde la instalación de ascensor afecte a dominio público, deberá obtenerse la correspondiente autorización de ocupación privativa."

En concreto, la instalación de ascensor en los portales números 4, 6. 8 y 10 de la avenida Gipuzkoa por parte de la comunidad de personas propietarias requiere la desafectación del dominio público de 9,21 m2 (3,50mX2,63m) de superficie.

Debe justificarse la oportunidad y legalidad de la desafectación, según el artículo 81 de la Ley 7/85.

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo **EL PLENO, POR UNANIMIDAD**, **ACUERDA**:

**Lehena**: Gipuzkoa etorbideko 4,6,8 eta 10 atarien parean dagoen eremuan, Jabari publikoaren 9,21 m2-ko (3,50mX2,63m) azalera baten desafektazioa gauzatzeko egokiera edo oportunitatea badagoela eta beharra interes sozialekoa dela deklaratzea, igogailua jartzearena kasu honetan.

**Bigarrena**: Desafektazio espedienteari hasiera ematea, hasierako onarpena emanaz eta jendaurrean jartzea 30 egunez.

**6.- HITZARMENA, SORALUZE, ELGOIBAR, MUTRIKU, MENDARO, EIBAR ETA DEBAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA GAUZATUZ, BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO, SORALUZEN DAGOEN ETXEBIZITZA ERABILTZEKO.**

Hitzarmenaren helburua da, bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako, Soraluzen dagoen, tutoretzapeko etxebizitzaren erabilera kudeatzea, eta koordinatzea, Debabarrena Gizarte Zerbitzuen eskualdea osatzen duten udalerrien artean. Inola ere ez du ekarriko etxebizitzaren jabaria lagatzea, eta haren jabetza Soraluzeko Udalaren izenean geratuko da.

Patricia Borinaga andreak, alkate orde eta PSE-EEko udal taldearen ordezkariak adierazi duenez, iazko Udalbatzan onartu zen Ordenantzaren jarraipena da hitzarmen hau. Iraupena urtebetekoa dela azpimarratu du, beste lau urtez luzagarria. Etxebizitzaren jabetza Soraluzeko Udalarena bada ere, kudeaketa gastuak (2.887.-euro) hitzarmeneko kide diren gainerako udalekin batera elkarbanatuko dira. Inbertsioak biztanle kopuruaren arabera ordainduko dituzte gainerako udaletxeekin batera. Etxebizitzaren

**Primero**: Declarar la existencia de oportunidad y la necesidad de interés social en la instalación del ascensor, a fin de efectuar la desafectación de una superficie de 9,21 m2 (3,50mX2,63m) del dominio público en la zona situada frente a los portales Gipuzkoa Etorbidea 4,6,8 y 10.

**Segundo**: Iniciar el expediente de desafectación, con la aprobación inicial y acordar la exposición pública durante 30 días.

**6.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE SORALUZE, ELGOIBAR, MUTRIKU, MENDARO, EIBAR Y DEBA PARA EL USO DE LA VIVIENDA TUTELADA PARA PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN UBICADA EN LA LOCALIDADDE SORALUZE.**

El objetivo del convenio es la gestión y coordinación para el uso del piso tutelado para personas en riesgo de exclusión ubicado en Soraluze, entre losmunicipios que conforman la comarca de los Servicios Sociales de Debabarrena. En ningún caso implicará la cesión del dominio del piso objeto del mismo, quedando su propiedad a nombre del Ayuntamiento de Soraluze.

Doña Patricia Borinaga, teniente alcalde y representante del grupo municipal del PSE-EE, señala que este convenio es continuación de la Ordenanza que se aprobó en el Pleno del año pasado. Subraya que la duración es de un año, prorrogable por otros cuatro. Aunque la propiedad de la vivienda es del Ayuntamiento de Soraluze, los gastos de gestión (2.887 euros) se compartirán con el resto de ayuntamientos que forman parte del convenio. Las inversiones se sufragarán en función del número de habitantes. El precio de la vivienda será

prezioa ezberdina izango da, hutsik edo okupatuta dagoen kontuan izanik. Bertako bizilagunen beharren jarraipena, hezitzaileek egingo dute. Eta bere herritarren gastuak Udal bakoitzak bere gain hartuko ditu. Honetarako dagoen udal aurrekontuko partida Gipuzkoako Foru Aldundiko transferentzia bidez dago diruz hornituta.

**UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

**Lehena:** Hitzarmena onartzea, Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako Udalen arteko lankidetza gauzatuz, Soraluzen dagoen tutoretzapeko etxebizitza erabil dezaten bazterkeria arriskuan dauden pertsonek. (III. ERANSKINA)

**Bigarrena:** Alkateari baimena ematea hitzarmena eta berau indarrean sartzeko beharrezko diren agiriak sinatzeko.

**7.- BIZTANLEEN LAU ERAKUNDE BEREZIEN SORRERA ONARTZEA: SAN ANDRES, TXURRUKA, EZOZI ETA IRURE.**

Ramon Gallastegi zinegotzi jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, eman ditu azalpenak. Gaur egun INEn, Soraluzeko udalerriak soilik hiritarra edo urbanoa den lurzorua duela ageri da. Honek landa eremurako dauden diru-laguntzak jasotzeko muga bat suposatuko luke "landa garapen lege proposamen" berriaren arabera. Horregatik, muga hori gainditu asmoz historikoak diren lau landa eremuko auzogune horiek ikusgarri jarri beharra dago INEko datuetan.

Roke Akizu zinegotzi jaunak, EH-BILDU udal taldeko kideak, gehitu du EREIN diru-laguntza jasotzeko baliogarria izan daitekela landa eremuak ezberdintze hau

diferente según esté vacía u ocupada. El seguimiento de las necesidades de las personas usuarias será realizado por educadores, y los gastos de sus ciudadanos serán asumidos por cada Ayuntamiento. La partida presupuestaria destinada a este fin está dotada económicamente mediante transferencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**EL PLENO POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

**Primero:** Aprobar convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar y Deba para el uso de la vivienda tutelada ubicada en la localidad de Soraluze por personas en riesgo de exclusión. (Anexo III)

**Segundo:** Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos sean necesarios para su entrada en vigor.

**7.- APROBACIÓN DE LA CREACIÓN DE LAS CUATRO ENTIDADES SINGULARES DE POBLACIÓN: SAN ANDRÉS, TXURRUKA, EZOZI E IRURE.**

El concejal Sr. Ramón Gallastegi, miembro del grupo municipal EAJ-PNV da las explicaciones sobre el tema. Actualmente en el INE consta que el municipio de Soraluze dispone de suelo exclusivamente urbano. Esto supondría un límite para recibir las subvenciones existentes para el ámbito rural según la nueva "proposición de ley de desarrollo rural". Por ello, para superar esta limitación, es necesario actualizar en los datos del INE estas cuatro históricas zonas vecinales rurales.

El concejal Sr. Roke Akizu, miembro del grupo municipal EH-BILDU, añade que puede ser válido realizar esta

egitea eta baita DEBEMENentzat ere. Baina landa garapen lege berri horretan, zein eragin duen zehazki egoera honek, hurrengo batzorde informatzailean jakin nahi lukela.

Iker Aldazabal Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, erantzun du, esanaz oraindik proiektu fasean dagoen landa garapen legea aztertu dutenean, ohartu direla, Soraluzeko udalerriko lau zonalde historiko-tradizional horiek ez daudela espresuki edo berariaz identifikatuta "landa auzogune" gisa. EUSTAT omen da Eusko Jaurlaritzaren informazio iturria landa auzoguneak definitzeko eta honek INEko datuak omen ditu oinarri. Horregatik, kate honetan abiapuntu den INEk datu eguneratuak islada ditzan da prozedura honen helburua. Lagungarria izan da mapa topografikoa eguneratuta izatea.

**UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ONARTU DU**:

**Lehena**: kalifikatzea edo izendatzea Soraluzeko udalerri barruan dauden San Andres, Txurruka, Ezozia eta Irure landa auzoguneak, BIZTANLEGOAREN ENTITATE SINGULAR gisa.

Horretarako arrazoia zera izanik: herritar multzo bat bizi da horietako bakoitzean, jarraian zerrendatuko diren baserrietan eta inolako zalantza gabe eta argi identifkatuta daude udalerriaren baitan izaera propio eta bereiztu batekin landagune horiek, atxikitu den planoan ageri den moduan.

**Baserriak**

**San Andres auzoan**: Agirre Bolu, Arizaga, Arizaga-Etxe, Argarate, Argarate-Buru, Arteta, Aseginolaza, Bagozkoitia,

diferenciación de las zonas rurales para recibir la subvención Erein y también para Debemen. Pero quisiera saber en la próxima comisión informativa, qué efecto tendría exactamente esta situación, en esa nueva ley de desarrollo rural.

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, responde que cuando han analizado la ley de desarrollo rural, todavía en fase de proyecto, se han percatado de que estas cuatro zonas histórico-tradicionales del municipio de Soraluze no están identificadas expresamente como "núcleos rurales". Eustat es la fuente de información del Gobierno Vasco para definir los núcleos rurales y se basa en los datos del INE. Por ello, el objetivo de este procedimiento es que el INE del queparte esta cadena refleje los datos actualizados. Ha ayudado que el mapa topográfico esté actualizado.

**EL PLENO POR UNANIMIDAD, ACUERDA:**

**Primero**: Aprobar la calificación o designación de los barrios rurales de San Andrés, Txurruka, Ezozia e Irure, situados en el término municipal de Soraluze, como ENTIDADES SINGULARES DE POBLACIÓN.

Siendo la motivación para ello la siguiente: en cada uno de ellos reside un grupo de población, en los caseríos que se relacionan a continuación y que están claramente identificados con un carácter propio y diferenciado en el seno del municipio, según se observa en el plano adjunto.

**Caseríos**

**Barrio San Andres**: Agirre Bolu, Arizaga, Arizaga-Etxe, Argarate, Argarate-Buru, Arteta, Aseginolaza, Bagozkoitia,

Barrenetxea, Etxebarria, Goenetxea, Goenetxea-Etxe, Iriarte, Iturriaga, Itxasoegi, Iriarte-Gain, Ipiñarrieta, Izagirre, Izagirre-etxea, Korta, Obe, Ozuma-gain, Ozuma-azpi, San Andres, Urruzkarate, Zeleta. Bordak: Urkizelai eta Izai.

**Txurruka auzoan**: Aguirre, Aguirre-Beiztegi, Artea-pea, Azaoleaga, Azaoleagaetxetxo, Carmelo Mendizabal, Egotza, Egotza-Etxetxo, Edurdungoa, Madari, Mendizabal, Txurruka, Txurruka Azpi, Zuloaga.

**Ezozia auzoan**: Aldasoro, Aldasoro etxea, Altamira, Araneta, Armendia, Arteaga, Arrieta, Arrizabalaga, Espilla, Ezozia, Iribe, Irigoien, Iturbe-zarra, Iturbe barri, Iturbe-txiki, Kirueta, Larreategi, Legarda, Mendiola, Mendoz, Muneta.

**Irure auzoan**: Arregibaso, Eizaga, Eizaga-Etxeberri, Erlaegi, Ernizketa,Iraola, Illordo, Intxausti, Iraola-Etxeberri, Iraolabeitia, Iraola-Mantxa, Irure-hemengo, Irure-andiko, Itzio-Berri, Maltzaga, Ostegieta, Urretxa, Zalogen-Azpi, Zalogen-gaine.

**Bigarrena:** INE-Estatistika Institutu Nazionalaren Gipuzkoako lurralde ordezkariari jakinarazi akordioa

**Hirugarrena:** EUSTAT – Euskadiko estatistika institutoari jakinarazi akordioa.

**8.- <u>LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA SORALUZEKO UDALA ETA BOSQUES SOSTENIBLES S.L.U ENPRESAREN ARTEAN.</u>**

Alkateak proposatutako hitzarmen honen xedea, Udalari zuhaitzak ematea, landatzea eta mantentzea da,ingurumena babestu eta hobetzeko.

Landaketak Soraluzeko udalerrian dagoen 26.289m2-ko IDOI-

Barrenetxea, Etxebarria, Goenetxea, Goenetxea-Etxe, Iriarte, Iturriaga, Itxasoegi, Iriarte-Gain, Ipiñarrieta, Izagirre, Izagirre-etxea, Korta, Obe, Ozuma-gain, Ozuma-azpi, San Andres, Urruzkarate, Zeleta. Bordak: Urkizelai eta Izai.

**Barrio Txurruka:** Aguirre, Aguirre-Beiztegi, Artea-pea, Azaoleaga, Azaoleagaetxetxo, Carmelo Mendizabal, Egotza, Egotza-Etxetxo, Edurdungoa, Madari, Mendizabal, Txurruka, Txurruka Azpi, Zuloaga.

**Barrio Ezozia**: Aldasoro, Aldasoro etxea, Altamira, Araneta, Armendia, Arteaga, Arrieta, Arrizabalaga, Espilla, Ezozia, Iribe, Irigoien, Iturbe-zarra, Iturbe barri, Iturbe-txiki, Kirueta, Larreategi, Legarda, Mendiola, Mendoz, Muneta.

**Barrio Irure**: Arregibaso, Eizaga, Eizaga-Etxeberri, Erlaegi, Ernizketa,Iraola, Illordo, Intxausti, Iraola-Etxeberri, Iraolabeitia, Iraola-Mantxa, Irure-hemengo, Irure-andiko, Itzio-Berri, Maltzaga, Ostegieta, Urretxa, Zalogen-Azpi, Zalogen-gaine.

**Segundo:** Comunicar el acuerdo al Delegado Territorial del INE-Instituto Nacional de Estadística en Gipuzkoa.

**Tercero:** Comunicar el acuerdo al Eustat – Instituto Vasco de Estadística.

**8.- <u>APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE Y LA EMPRESA BOSQUES SOSTENIBLES S.L.U.</u>**

Este convenio propuesto por el Alcalde tiene como objeto la entrega, plantación y mantenimiento de arbolado al Ayuntamiento, para la protección y mejora del medio ambiente.

Las plantaciones se realizarán en el terreno helechal denominado; IDOI-

AZKABEITIABURUA izeneko iratze-lursailean egingo dira (landa katastroko 04 poligonoaren, 60. partzelan).

Ramon Gallastegi zinegotzi jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, eman ditu azalpenak:

EAJ-PNV udal taldeak iazko hauteskunde kanpainan adierazi zuen lursailak erosten saiatuko zela eta horregatik egiten ari direla ahalegin berezia arlo honetan. Erosketa horiek diru kostua dutela gogorarazi du. Gaurko hitzarmena ingurumen gaiak lantzen dituen enpresa batekin gauzatu da. Honen helburua: CO2 isurketak konpentsazio gisa sortzea. Hitzarmen honetako baldintzen artean bereziki aipagarria deritzo hauei: lursailak garbitu, itxitura egin, landareak ordaindu eta landatu. Ondoren zuhaitzen zainketa Udalaren ardura da. Hitzarmen honen bidez udalak 12.400.-euro aurreztuko ditu.

Bozketa egin ondoren, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) ordezkariei dagozkien aldeko sei botoz eta EH-BILDUko ordezkariei dagozkien bost abstentzioz,

**UDAL BATZARRAK GEHIENGOZ ERABAKI DU**:

**Lehena:** Hitzarmena onartzea Soraluzeko Udalaren eta Bosques Sostenibles S.L.U. enpresaren arteko lankidetza gauzatuz. (IV.ERANSKINA)

**Bigarrena:** Alkateari baimena ematea hitzarmena eta berau indarrean sartzeko beharrezko diren agiriak sinatzeko.

**Hirugarrena:** Akordioaren berri ematea interesdunari eta gardentasun atarian

AZKABEITIABURUA de 26.289m2. Ubicado en el término municipal de Soraluze (en el Polígono 04 Parcela 60 del catastro de rústica).

El Concejal Sr. Ramón Gallastegi, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, expone lo siguiente:

El grupo municipal EAJ-PNV manifestó en la campaña electoral del año pasado que intentaría comprar terrenos y por eso se está haciendo un esfuerzo especial en esta materia. Recuerda que estas compras, tienen un coste económico. El convenio, se ha materializado con una empresa dedicada a temas medioambientales. Objetivo: generar emisiones de CO2 como compensación. Entre las condiciones del convenio, destaca especialmente la limpieza de los terrenos, el cierre, el pago de las plantas, y su plantación. Después el cuidado de los árboles es responsabilidad del Ayuntamiento. El presente convenio supondrá un ahorro de 12.400 euros.

Sometido a votación, con seis votos a favor, correspondientes a las personas representantes de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a EH-BILDU,

**EL PLENO POR MAYORÍA ACUERDA:**

**Primero:** Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Soraluze y la empresa Bosques Sostenibles, S.L.U. (ANEXO IV)

**Segundo:** Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos sean necesarios para su entrada en vigor.

**Tercero:** Proceder a la notificación del acuerdo a la persona interesada y



Santa Ana, 1 ● SORALUZE (20590) ● Tfn.: 943753043 ● Fax: 943753112 ● udala@soraluze.eus ● www.soraluze.eus

argitaratzea.

Roke Akizu jaunak, EH-Bildu udal taldeko kide eta ordezkariak, plazaratu du ondorengo mantenua hiru aldiz garestiagoa izango dela. Eta lursail erosketak eta zuhaitz landaketak egiteko ez dela enpresa batekin hitzarmena egin beharrik, izan ere, badira Euskal Herrian egokiak diren erakundeak, besteak beste, "Lurgaia" eta "Naturgintza". Nahiz eta, baieztatu duen interesgarria dela diru pribatua sartu ahal izatea ekimen publikoetan, RODISAren kasuan bezala. % 90an Udalak jarriko duela kasu honetan eta 30 urtetan CO2ren isurketa gutxitu egingo dela baiezta daiteke. Bere ikuspegitik, hitzarmen zehatz honetan kontraesana bere iraunpenean datza, hiru hilabetekoa baita. Horregatik, zuhaitz landaketa, lursail erosketa eta CO2 isurketen gutxitzearen gai hauek ordenatu egin behar direla deritzo. Hau da, finkatu egin behar dela, zein enpresak gonbidatu eta lehentasuna eman eskualdeko enpresei.

Iker Aldazabal Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, erantzun du, esanaz CO2 isurketen gaia albo batera utzita, Udalaren asmoa 10 hektareako lursail erosita, "Dolmenen ibilbideak" zeharkatzen dituen lursailak sektore publikora eskualdatu eta zuhaitz landaketa sustatzea izan dela. Hitzarmen zehatz honen kasua helduz, Mendaron izandako esperientzia jarraitu zen, bertan, "Forjas Iraeta" Aizarnazabalgo enpresak - "Bosques Sostenibles" enpresaren bitartekaritzaz - finantziatu baizituen erosketak eta landaketak. Baina badira aukera gehiago esku artean. Batetik, RODISA enpresak badu interesa antzeko ekimenetan partehartzeko, nahiz eta balintzak ezberdinak izan. Bestetik, LURGAIA fundazioa, Bizkaiakoa dena, lankidetzarako erakunde baliogarria izan

publicación en el portal de transparencia.

El Sr. Roke Akizu, miembro y representante del grupo municipal EH-Bildu, expone que el mantenimiento posterior será tres veces más caro. Añade que para realizar compras de terreno y plantaciones de árboles no es necesario firmar un convenio con una empresa. De hecho, existen instituciones adecuadas en Euskal Herria como "Lurgaia" o "Naturgintza". Aunque, afirma, es interesante poder contar con dinero privado en iniciativas públicas, como en el caso de RODISA. Se puede afirmar que el 90% lo aportará el Ayuntamiento en este caso y que disminuirá la emisión de CO2 en 30 años. Desde su punto de vista, la contradicción en este convenio en concreto, radica en su duración, que es de tres meses. Por ello, considera que los temas de plantación de árboles, compra de terreno y reducción de emisiones de CO2 deberían ser regulados. Es decir, decidir, qué empresas invitar, y priorizar a las empresas de la comarca.

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, responde que, al margen del tema de las emisiones de CO2, la intención del Ayuntamiento ha sido la de adquirir 10 hectáreas de terreno con el fin de transmitir al sector público los terrenos que atraviesan la "ruta de los Dólmenes" y fomentar la plantación de árboles. En el caso concreto de este convenio, se siguió la experiencia de Mendaro, donde la empresa de Aizarnazabal "FORJAS Iraeta", por mediación de la empresa "Bosques Sostenibles", financió las compras y plantaciones. También existen otras posibilidades. Por un lado, la empresa RODISA tiene interés en participar en iniciativas similares, aunque las condiciones sean diferentes. Por otro lado, la Fundación bizkaina LURGAIA,

daiteke. Enpresa pribatu eta Administrazio publiko arteko lankidetzaren xedea, diru publiko eta pribatua erabiliz zuhaitzak landatu ahal izatea izango litzake.

puede ser una entidad válida para la cooperación. El objeto de la colaboración entre la empresa privada y la Administración pública sería poder plantar árboles con dinero público y privado.

Roke Akizu zinegotzi jaunak, EH-BILDU udal taldeko kideak, gogorarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntzak eskaini ohi dituela zuhaitzak landatzeko. Kritikatu egin du Udal taldearen irizpidea erosketak direla eta, izan ere, bere ustez, lehentasuna baitute erosketek. Eta bere aburuz, lurjabeekin adostasunak lortzea egokiagoa litzateke. Izan ere, erosketek Udalarentzat diru gastu handia eragiten baitute.

El Concejal Sr. Roke Akizu, miembro del grupo municipal EH-BILDU, recuerda que la Diputación Foral de Gipuzkoa ofrece subvenciones para la plantación de árboles. Critica el criterio del grupo municipal respecto a las compras, ya que considera que siempre tienen prioridad y que sería más adecuado llegar a acuerdos con los propietarios de los terrenos, ya que las compras suponen un gran gasto para el Ayuntamiento.

Iker Aldazabal, Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak eskatuko dituela. Eta Udalaren ipar orratz nagusia mendigaineko lursailak izan direla.

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, manifiesta que solicitará las subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y que el principal objetivo del Ayuntamiento han sido los terrenos de la zona de Mendigaina.

Maite Kintanilla zinegotzi andreak, EH-BILDU udal taldeko kideak, mahai gaineratu du herritar batzu aurkeztu izan direla Soraluzeko Udaletxean proposamen zehatzekin beren lursailak eskuragarri utziz. Baina, Udalak salerosketa lehenetsi duela bereziki.

La señora concejala Maite Kintanilla, miembro del grupo municipal EH-BILDU, manifiesta que algunas personas vecinas se han acercado al Ayuntamiento de Soraluze con propuestas concretas dejando a disposición sus terrenos, pero que el Ayuntamiento ha priorizado especialmente la compraventa.

Ramon Gallastegi zinegotzi jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, matizatu nahi izan du, orain artean ez duela hitzarmenik izenpetu beste inorekin. Eta nahiz eta egia izan, pinuak landatzen aritu dela baten bat, Udalaren lehentasuna mendigainaren zonaldea dela. Zehaztu du adibide gisa "Idorixaga" inguruko landaketak direla medio, erosketa baino diru gehiago eskuratuko duela Udalak.

El concejal Ramón Gallastegi, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, ha querido matizar que hasta el momento no ha firmado ningún convenio con nadie. Aunque sea cierto que alguno se ha dedicado a plantar pinos, que la prioridad del Ayuntamiento es la zona de Mendigaina. Detalla como ejemplo que por las plantaciones de la zona de "Idorixaga", el Ayuntamiento obtendrá más dinero que la compra.

Unai Larreategi zinegotzi jaunak, EH-Bildu udal taldeko kideak, gai honi buruzko ezbaian parte hartu du, zera gehituz: sarri ateratzen dela gai hau eta gogoeta egin nahi lukela ea ba ote dagoen ideologi ezberdintasun nabarmenik bi udal taldeen artean, liskarretan ibiltzeko. Alkatea ez dela orain artean gai izan irizpide edo oinarri batzuk udal kide guztien artean adosteko, eta salerosketaren formula juridikoa "totem" bezala jartzea ez dela egokia. Bi aukera daudela, salerosketa eta lagapena, eta biei eman behar litzaiekela bide. Enpresa pribatu batek "altruistamente" dirua jartzea ontzat ematen dutela, udal talde gisa. Hala ere, onuragarria dela udal talde politikoen artean irizpide batzuk adostea. Besteak beste, uste du finkatu beharko litzatekela enpresa pribatuek egindako ekarpen ekonomikoekiko proportzionaltasun irizpidea, karbono dioxido konpentsaziorako eskubideak eskuratzeko garaian.

El Concejal Sr. Unai Larreategi, miembro del grupo municipal EH-Bildu, interviene en la discusión sobre este tema, añadiendo que con frecuencia sale este tema y quiere reflexionar sobre si existen diferencias ideológicas significativas entre ambos grupos municipales para pelear. Que el alcalde no ha sido capaz hasta ahora de consensuar unos criterios o unas bases entre todos los miembros municipales, y que la fórmula jurídica de la compraventa como "tótem" no es adecuada. Que hay dos posibilidades, la compraventa y la cesión, y que habría que dar paso a ambas. Como grupo municipal dan por bueno que una empresa privada ponga dinero "altruistamente". No obstante, es beneficioso acordar una serie de criterios entre los grupos políticos municipales. Entre otras cosas, estima que se debería fijar el principio de proporcionalidad respecto a las aportaciones económicas de las empresas privadas, de cara a la obtención de derechos decompensación de carbono dióxido.

**9.- <u>ESKARI ETA GALDERAK.</u>**

Ondorengo eskari eta galderak egin dituzte jarraian izendatutako batzarkideek:

Iker Aldazabal, Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, gogoan izan du Jesus Tapia jaunak, Aranzadiko ikerlariak, emango duen hitzaldia 2019ko arkeologia prospekzioei buruz.

Unai Larreategi zinegotzi jaunak, EH-Bildu udal taldeko kideak, zahar egoitza edo erresidentzien inguruan Udalak aurreko Udalbatzan onartutako mozioa dela eta, erantzunik jaso ote den Gipuzkoako Foru Aldunditik galdetu du.

**9.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>**

Se formulan los siguientes ruegos y preguntas por parte de las personas corporativas que se citan:

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, miembro del grupo municipal EAJ-PNV, recuerda la conferencia que ofrecerá el investigador de Aranzadi, D. Jesús Tapia, sobre las prospecciones arqueológicas de 2019.

El Concejal Sr. Unai Larreategi, miembro del grupo municipal EH-Bildu, pregunta si se ha recibido respuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa la moción relativa a las residencias de ancianos aprobada por el Ayuntamiento en la anterior sesión.

Iker Aldazabal Alkate jaunak, EAJ-PNV udal taldeko kideak, erantzun du jarraipena egingo zaiola gaiari.

El Sr. Alcalde Iker Aldazabal, del grupo municipal EAJ-PNV, responde que se va a hacer un seguimiento del tema.

Eta beste gairik ezean eta 19 orduak eta 44 minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat eman da.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las 19 horas y 44 minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión.

Hori guztia hala izan dela ziurtatu dut.

De todo lo cual certifico.

Idazkari-Kontuhartzailea

*ITZIAR AZURZA SORRONDEGUI*



Santa Ana, 1 ● SORALUZE (20590) ● Tfn.: 943753043 ● Fax: 943753112 ● udala@soraluze.eus ● www.soraluze.eus

ORDENANTZA, GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI ERANTZUTEKO HARRERA-ETXEBIZITZA ARAUTZEARI BURUZKOA.

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea honako hauda: larrialdiko harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea.

Baliabide honen sorrerak eta erregulazioak Udalak premiazko alojamenduaren arloan duen eskumena arautzen duten araudiei erantzuna ematen die.

Gizarte larrialdietarako etxebizitza hauen xedea da erregelamendu honetako 2. artikuluan zehaztutako premia/larrialdi egoerei erantzutea etxebizitza hau aldi baterako erabiltzeko aukera eskainita. Etxebizitza hau lagatzea esan nahi du zerbitzu publiko ari dela eskaintzen; eta, horrexegatik, bete egin behar du Herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautzen duen araubidea; beraz, aldi baterako harrerako etxebizitza erabiltzen duen pertsonak Soraluzeko Udalarekin izango duen harremana ez da alokairuari dagokion figura juridikoa izango. Etxebizitzaren lagapena ez da mugagabea izango.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Udalen eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, 33 2 a) artikuluan udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, eta aditzera ematen du, oinarrizko arretarako

ORDENANZA REGULADORA DEL PISO MUNICIPAL DE ACOGIDA PARA LA ATENCIÓN DE SITUACIONES DE URGENCIA SOCIAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente ordenanza tiene por objeto regular el uso y el acceso al piso de acogida de urgencia de carácter municipal.

La creación y regulación de este recurso viene a responder a las distintas normativas que regulan la competencia del Ayuntamiento en materia de alojamiento de urgencia.

El objetivo de este piso de urgencia social es dar respuesta a situaciones de urgencia/ emergencia definidas en el artículo 2 del presente reglamento mediante el acceso temporal al uso de esta vivienda. La cesión de este piso tiene carácter de prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación de la persona usuaria del piso de acogida temporal con el Ayuntamiento de Soraluze que gestiona el servicio no constituirá figura jurídica de arrendamiento. En ningún caso la cesión del piso se realizará por tiempo indefinido.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, establece, en su artículo 42 que será competencia de los Ayuntamientos en el ámbito de sus respectivos términos municipales, la realización de las siguientes funciones: La provisión de los Servicios Sociales de atención primaria del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

A su vez, el Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales desarrolla en su artículo 33 2 a) los servicios y prestaciones, o ayudas económicas de competencia municipale indica que, dentro de los servicios

gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, harrera-etxebizitza egongo da.

Ordenantza honetan etxebizitza edo pisu horiek arautuko dira eta eginkizun hau izango dute:

1. Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxebizitza. Etxebizitza honetan alojamendua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei, gizarte-larrialdiko edo emergentziazko egoera batek eragindako alojamendu-gabeziari aurre egin ahal izatek.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea larrialdietako harrera-etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea da.

1.- Gizarte-larrialdiko egoeretarako harrera-etxebizitza larrialdiko aldi baterako harrerarakoa da. Hortaz, bizitoki-gabeziagatik eta/edo bizikidetza-gatazka larriengatik sortutako egoera kritikoei erantzuteko balio du.

